

# UNAI EGUREN RETOLAZA

A Maila | Bertsoa | 2. saria

Kaixo, lagunok: Ni Unai Eguren nauzue, Txindoki Institutuan 2. batxilergoa egiten ari den ikasle zeraindarra. Zaletasunei dagokienez, betitik esku-pilotan ibili izan naiz, baina duela urtebete mendian korrika egiteari ekin nion. Bertsoa ere betidanik izan dugu afizio familiar, baina inongo bertso eskolatan aritu gabe. Aitari beti gustatu izan zaizkio bertsoak, zale amorratua da, ni bezala. Bertsoa, azken finean, nire ustez, ideiak hobeto adietazteko era bat dela uste dut. Espero dut COVIDari jarritako hauek zuen gustukoak izatea.

## COVIDARI BERTSOAK

Txinan hasi ta mundu osora

lortu zuen hedatzea

ez da erraza ez esplikatzen

hark sortu zuen trantzea

une batean lortu zuena

gizakiak itotzea

Iraun zituen bi urte haiek

hobe mapatik kentzea

Birus zitala azkar hasi zen

kutsatzen jende gehiago

hastapenean gu ondo geunden

lasai hori Txinan dago!

Europar azkar sartu ostean

egin zitzaigun arraro

eta gurera heldu zenean

orduan ia akabo

Ta uholdea azkar sartu zen

baita denok busti ere

ospitaleak egin zituen

osotasunean bere

kaltetuenak izan zirenez

hainbat ta hainbat agure

hilerrietan jarri genitun

malkoz makina bat lore

Hamabost egun egin zituzten

eskola guztiak itxi

hastapenean ezin genuen

egia zenik sinetsi

baina aspertzen hasi ginenez

azkenean ezin eutsi

kartzelan gisa egon ginen ta

ez degu meritu gutxi

Nola utzi ba aipatu gabe

orduko hainbat momentu

azkenenerako bihurtu ziren

hamaika etxe konbentu  
ta komuneko papelik gabe  
gelditu\_ezean kontentu  
txakurrak ondo paseatzeko  
bazen nahikoa talentu

Eta honetan txarren-txarrenak  
osakidetzaren zamak  
eta jendeak ezin ulertu  
aditu haien esanak  
momentuero moldatu behar  
ospitaletako lanak  
ez dakit inoiz eskertu diren  
ordun egindako danak

Doinua: Oh baserritxo